



10:00 Milaka lagunek hautatu zuten garraio publikoa Lezora inguratzeko. Goizetik Renfeko zein Euskotreneko zerbitzuak leporaino beteta ibili ziren. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



9:30 Lezoko plazan egin zuten Kilometroak jaiaren hasierako ekitaldia. Pasaiaiko eta Lezoko alkateek, ikastolako zuzendariak, lehendakariak eta irakasleek parte hartu zuten. Lakuako Isabel Celaa Hezkuntza sailburua ez zen bertan izan, baina bidali zuten hango ordezkaria. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



13:00 Eguerdia, Txan Magoak alaitu zuen lehenengo gunea. Haurrak zein helduak magia jokoei begira egon ziren ahozabalik berarekin. Jende ugari bildu zen ikuskitun horretan zein inguruan haurrentzat jarri zituzten puzgarrietan, baita bertako tabernetan ere. Darieta gunean Ze esatek taldeak jo zuen bazkalarean, Amunttinen Betizuak aritu ziren eta Emon taldekoak Algeposan. J. URBE | ARGAZKI PRESS



16:00 Arratsalde partean kontzertuen tartea izan zen. Jende andana bildu zuen bosgarren gunean Betagarri taldeak. Handik aurrera, lehen guneko Anje Duhalderen emanaldia eta Gozategirena ere arrakastatsuak izan ziren. Gose, Naiz Roxa edo Esne Beltzak ere gazte zein heldu erakarri zituzten. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

18:00 Ibilbideko guneetan egun osoan zehar ibili zen jendea, baina iluntze partean, pixkanaka herrian kokatua zen lehen gunera inguratu ziren euskaltzaleak. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

